

TXILLARDEGI:
LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA

Iñaki Aldekoa Beitia

Egun on, eta eskerrik asko uztaila erdian hitzaldi nahasi hau entzutera etortzeagatik. Hitzaldia hiru zatitan banatuko da, arbelean dituzuen hiru zati horietan.

1. Testuinguru ultrakatolikoan eztanda bat

Lehenengo puntu honi Ernst Bloch-ek, *El principio de la esperanza* idatzi zuen filosofo marxista alemanak, 1930.urte inguruan egiten zuen gogoeta batekin ekingo diot:

ez dira pertsona guztiak ORAIN (letra larriz) berean bizi. Kanpotik baino ez da horrela gertatzen, soilik gaur eta hemen ikus ditzakegulako.

Pentsalari alemanak «garaikidetasunaren ez-garaikidetzaz» zioen hura fenomeno historiko zabaldua da eta, garai bateko kultura-ikuspegi bateratu gisa aztertu ohi dutenei begira, desafio larri bat.

Gurera etorritz, antzeko gogoeta egiten zuen Joxe Azurmendik *Oraingo gazte eroak* liburuan. Hauxe zioen:

batzuetan pentsatzen dut gure arazoa belaunaldi bakarrean lau mende eta hiruzpalau iraultza batera bizi behar izatea dela: hori zeinek zuzen asmatu? (89. or.)

Azken batean, Alemanian Erreformarekin XVI.mendean gertatu zen komentuen hustuketa hemen lau mende geroago gertatu zen, eta tartean gertatutako era guztietako eraldaketak nola edo hala, ezinbestean, modu nahasi eta bizkorregian geureganatu behar izan genituen. Horrela gertatu bada testuinguru soziokulturalean, beste hainbeste gertatu delakoan nago bilakaera pertsonaletan ere. Baita Txillardegirenean ere. Ikusiko da aurreago.

Ez gara hasiko hemen aski ezagunak diren kontuak aletzen. Ez diogu bada helduko, premia-premiazkoa ez den neurrian, *Euzko-Gogoa*, *Egan* eta geroxeago *Jakin* aldizkarien inguruan gertatutakoari, nahiz eta ondo jakin horiek izan zirela, oro har, kultura-sentsibilitate edo mundu-ikuspegi nagu-

sien agertokiak euskal munduan. Nahikoa dugu esatearekin Orixen eta *Euzko-Gogoa*-ren inguruan biltzen zirela erlijioa (Eliza eta Jainkoa) orden moral osoaren muin gisa bizi zutenak (tradizioa, balio indibidual eta sozialak eta abar). Ezagutzen ditugu Orixeren eta Nemesio Etxanizen edo Ibiñagabeitia baten artean zeuden aldeak, nahiz eta historia kultural batetik begiratuta, ñabardurak izan, trantsizio kulturaletan gertatu ohi diren modulazio xumeak. Bestetik, *Egan* eta *Jakin* (1960tik aurrera). Azurmendik honela adierazten zuen kontu hori:

ulertzen da orain kontua, Nemesioren bihotza buruarekin ezbai gatazkan zebilen artean, *Izotz kandelak* idazteko posibilitatea pentsatzen eta ez ausartzen, Txillardegi *Leturia* eta *Peru Leartzako* publikatzen ari zela jada: denbora diferente biren arteko desfasea alegia une berean euskal kulturaren.

Artean, orixezale eta euzko-gogozalea zen *Jakin* aldizkarian izan zuen *Leturiaren egunkari ezkutua*-k aurreneko eraso gogorra. Iñaki Baztarrikak, orduko *Jakin*-eko zuzendariak, bi lan argitaratu zituen zenbaki berean (5. zenbakian), bata Camusi buruz, «Albert Camus edo gizatasun etsia», eta bestea Txillardegiren *Leturiari* buruzkoa. Lehenengoan egile argeliar-frantsesaren seriotasuna, egi-grina, jatortasuna eta gizatasuna goraiipatzen ditu (Charles Moeller-en *Littérature du XX siècle et Christianisme* liburuari jarraituz idatzitakoa da). Bestean, aldiz, Txillardegiren lana jipoitu egiten du. Maltzur samarra, Baztarrikaren joko; Camus eta Dostoievsky bai, baina Txillardegiren «existentzialista kutsuko» eleberria ez. Camus-ek Dostoievsky aupatzen du existentzialismoaren aitagoi gisa, eta Camus bera da, Sartre-rekin batera, literatur-korrante horren ordezkari behinena. Horrek guztiak kanporako balio zezakeen. Etxekoari egurra. Aditza ematen du ulerberak garela eta Camus eta Dostoievsky beren maila intelektual eta moralean gozatzeko gaitasuna izanik, ez genukeela gurea ere zertan ez ulertu, baina Txillardegiren lanari baldarra eta noragabea irizten dio. Gertatu dena, ordea, beste hau da: ez zaizkiola gustatu Txillardegiren saioak zabaltzen dituen ateak, ordu arte tinko itxita zeudenak. Saiatu bai, baina ezin Baztarrikak uholde modernizatzaileari eutsi. Modernotasunaren ateak jada zabalik zeuden eta existentzialismoaren ikurpean ari zitzaigun gure mundua ziprztintzen.

Urte berean argitaratu zuen Luis Villasantek liburuari buruzko aipamena *Egan*-en. Nahiz eta Leturia zoro bat iruditu, ez zuen Villasanteren kritikak Baztarrikarenaren azpijokorik. Villasantek xaloago jokatu zuen, zintzoago; ez horregatik utzi zituen esan gabe kristau eta erlijioso baten barrutik esan beharrekoak. Villasantek ezin du irudikatu eleberrian agertzen den moduko pertsonaiarik («Leturia bezalako eroak ugaritzen badira», dio). Ez zuen asko espero gainera zetorkiona, Joxe Azurmendik *Oraingo gazte eroak* izenburupean marraztu zuen andana, alegia, modernotasunaren izenean, garai berrien ondare nagusi bihurtuko zena.

Erabatekoa zen etena: Leturia eta Peru Leartza zoroak dira Orixerentzat («liburu hauek gazte-jendearen artean egin dezaketen kalteagatik... ez dugu hemen halakorik behar»), zoroak Villasanterentzat. Ez ziren ba, ez batarentzat ez besterentzat, irakurketarik eredugarrienak.

Bestelakoa da Koldo Mitxelenaren irizpidea:

nik ez dut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta *Leturiaren egunkari ezkutua* gizaldi berri baten eta gizaldi horren obren aitzindari gisa agertzen zaizkit.

Mundu zaharraren eta berriaren arteko etenduraren kronika bat da hau: Jainkoa eta kristautasuna mundu-ikuspegi zuen belaunaldi baten sinismen eta morala, batetik, eta, babes horren faltan, handik eta hemendik edango duen belaunaldiarena, bestetik. Deigarria gertatzen da eztabaida gogor honetan zein gutxi hitz egin den eleberriaz, eleberri gisa *Leturiaren egunkari ezkutua*-k izan zitzakeen ahuldadeez. Ulertzen dut eleberriaren forma, barne-koherentzia eta halakoak huskeria izatea jokoan zegoenaren aldean, azken finean, estetika bera ere ez da mundu-ikuspegi edo kosmobisio (erlijioa, balioak, giza-legetasuna) zabalago baten zutabe baina. Batzuentzat eta besteentzat, beraz, bazegoen non borrokatu «txikikeria» hauetan sartu baina lehen. Gauzak horrela, ahaztu egin zitzaigula dirudi eleberri baten aurrean geundela eta ez saiakera baten edo ideia filosofikoen euskarri baten aurrean. Esan dudan bezala, garaiak ez zuen horretan lagundu. Ez zegoen garaia ñabardura horietarako helduta, gure mundua borborrean zegoen eraldaketa sakon batean konprometitua. Ez zen garaia eleberriez hitz egiteko, ideologiaz, mentalitate etendurez, iraultzaz eta halako abstrakzioez jarduteko baizik. Azken batean, gure mundua goitik behera astindu zuen jarduerak ziren gogoetagai.

Ez pentsa urte gutxiren barruan likidatu zenik zurrumbilo moderno hori. Ez zen asuntua 1957-1965 tartean erabaki. Ramon Saizarbitoriak beranduago idatzi zuen bere *Egunero hasten delako*, eta artean ez zuen hark ere behar adinako bazkarik eman nonbait, ez gure ideien eztabaida eta egarria elikatze-ko tamainan, bederen. Nori axola eleberriaren eraikuntza formala? Nori ikuspegi errealista batetik saiaturako eguneroko mundu konkretuari jarritako arreta eta analisiaren balorazioak? Ez zen hori funtsezkoa, nonbait. Nobelak ez dira, ordea, ideiekin bakarrik eratzen, nobelagilearen begiratuak mundu apalago eta ezdeusagoetan ere pausatu behar du. Txikitasunaren ikertzaile ere bada nobelagilea. Norbaitek esana duen bezala, «Jainkoa detaileetan dago.» Baina gu oraindik ez geunden umotuta halako peskizetarako. Alde horretatik, berdin zion Leturiak Mireni emandako zaplaztekoa, azken batean, fraideek ere ez zuten besterik egiten ume gajoekin, egurka ibili; garaioko markak izaki, nonbait, funtsik gabeko kasualitate ezdeusak. Gaurko egunetik begirata, berriz, funts gehiago du zaplazteko horrek eleberriko pertsonaia batek Jainkoaz egin dezakeen ukazioak baina. Halakoxea izan da ordutik hona gertatutako aldaketa. Etorriko gara berriz gai honetara.

2. Ohiturazko nobelaren eredu eta balioetatik egunkari literariora

Zein da halako planteamendu batek ekarri zuen berritasuna? Bada Txillardegiren nobelak ekarri zuena «ni» berri baten eraikuntza izan zen. Eta «ni» horrek berekin zekarren ordu arte euskal narratiban saiatu gabeko barne munduaren, subjektibitatearen, edo intimitatearen esplorazioa. Alde horretatik, bere nobelarekin Txillardegik bat egiten du mendebaleko modernotasunak gorpuztu zuen pentsamendu eta sentiberatasunarekin, hau da, Rousseau-rengandik erromantizismora igaro zen tradizioarekin. Mundu zaharraren eta geureganaino iritsi den berriago baten bidegurutzean, beraz, esan ahal izan zuen Rousseau-k, *Aitor-menak* bere liburuaren atarian, honakoa:

sekula exenplurik izan ez duen obra bati ekiten diot, zeinen burutzeak ez duen izango, bestalde, imitatzailek (*tronpatu egin zen honetan*). Nire berdinei gizon bat erakutsi nahi diet bere naturalezaren egia osoan; eta gizon hori neu izango naiz.

Eta gurean Joxeba Leturia da gizon hori. Hara nola deskribatu zuen Bitoriano Gandiagak (*Egan*, 1957) pertsonaia hori:

Gizon-begi-goritu
Gizon-jagi-zale
Gizon-grüñen-katigu
Gizon-miñez-bete-
Gizon:

Ordu arte ez zen euskal esparruan halakorik ezagutzen. 1988an *Hegats* aldizkariak argitaratu zion azkenetako elkarriketa batean, hauxe zioen Gandiagak:

Txillardegi eta ni ez gara eskola bera, baina bai komunitate literario berekoak. *Leturiaren egunkaria*. Nik erantzuna. Beste tradizio batetik etorri arren eta diferenteak izan arren, ez dugu elkar arrotz hartu, anaiak bezala baino.

Gandiagaren hitz horietan bi dira azpimarratu beharrekoak: «tradizio» (diferentea) eta «arrotz».

Zein da tradizio diferente hori? Dударik gabe, modernotasunak bere ernamuinetatik eraiki zuen subjektibotasunaren, norberegaitzaren eta intimitatearen tradizioa. Tradizio hori kristaua izan arren, ez da katolikoa (Unamunoren *San Manuel Bueno, mártir* katoliko ortodoxoa ez den modu berean). Azterketa laikotu horren norabideak Errefomaren iturrietaraino eramango gintuzke. Azken batean, barne-behaketara arima-azterketara errenditzen da ezinbestean. Jakina, halako aitortzak apaizaren aurrean eta Elizaren magalean egin ohi dira tradizio katolikoan. Haatik, zein urria den hegoalde katolikoan egunkaria literatur-genero gisa! Katolizismoak dogmaz iltzatuta izan du giza behaketaren bidea; erabat estalpetuta eta babestuta egon da gure elizetako aitormenzalea ezein zalantzaren zimikotik.

Eta hori horrela zen 1957ko Arantzazuko fraideentzat eta baita Gandiagarentzat ere. Baina noiz arte eutsi estalpe horri? Orditik hona transijitze atzabate baten historia dugu onenean euskal Elizarena.

Horretan ere aurreratu egin zen Leturia (Hegoaldeaz ari naiz, jakina; Mirande beste mundu batekoa dugu, bete-betea europarra). Zein eduki formalez mozorrotu da Leturia? Alain Girard-en *Le journal intime* liburutik jasotako hitzekin erantzungo dut:

gizakion historiak ez du gizaki bakarrarenak baino sendotasun handiagorik, eta barne behaketara isurtzen den gizabanakoak ez du bere baitan aurkituko, ez munduan ez gizartean hautemango, transzendentiaren oinordeko den betiereko antolaketa eredugarriarik. Norbere baitan behatzen du, bere burua ulertzen eta ezagutzen saiatuz, erlatibo eta desagerkor agertzen zaigun mundu sentipenaren aurrean geratzen zaion absolutu bakarra jarritz, norbere existentzia propioaren sentipena.

Beraz, bakarrik dago «Zerubiden», eta Leturiak berak eraiki beharko du, asmatu beharko du, erabaki beharko du, non eta nola bizi. Ez du Leturiak bere ordezkari bat duen Jainkorik, ez giza baliorik. Berak ezean, inork ez du bere existentziaren erabakimenik.

Leturiaren egunkari ezkutua irakurri duzuenok ohartu zarete honezkero zenbat orri eta buruhauste eskaintzen zaizkien kontu horiei, existentzialismoaren orbitan berpiztutako «*brainstorming*» horri guztiari, alegia: aukeratu beharrak sortzen duen larrimina, aurrerago berriz aukeratzea bera naturalezaren arnasa dela eta ezin duela gizakiak aukeratu (Schopenhauer, Freud...), egia, norbere bidea, absolutua eta abar.

Ez dezagun ahaztu egunkariaren formak berak eskaini diola estalpea aipatu dudana «*brainstorming*» moduko horri: malgua da egunkari generoa, eta esanekoa egutegiaren aginduarekin edo, eleberri honetara egokituz, urtaroeekin, nahiz eta barne-denbora edo denbora existentzialera errenditu. Azken batean, egunkari batek denboraren iragana erregistratu behar du. Halaxe zioen Blanchot-ek egunkariei buruz:

il doit respecter le calendrier.

3. Egunkaririk nobelara

Badakigu, beraz, egunkariarekin batera, eleberrira pasatu zaizkigula hainbat baliabide literario. Beste modu batean esateko, egunkari literarioaren potentzialitatea bere egingo du *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriak. Esate baterako:

- a) Urteko sasoen arabera denboraren antolamendua (egunkariaren agindura jarritz, nobelak ere behar zuen nolabaiteko denboraren datatze moduren bat).

- b) Barne behaketa eta intimitatea (intimitatea eta bakardadea eskutik helduta agertzen zaizkigu nobelaren aurreneko esalditik: «Bakarrik nago Zerubiden»). Intimitate moderno hau ez da ez komentuetan ez mendian garatuko, hiriko parkean baino. Ez dira bertan urmaelak eta iturritxoak faltako, izan ere norberarengan baitaratzeko gonbitak dira biak ala biak. Jakina, parkeak, baratzak, urmaelak, barne behaketaren (esplorazioaren) korrelato espazialak dira, ibiltari bakartiaren intimitatea garatzeko maiz erabiliak literatur tradizioan, benetako «*locis communes*» izateraino.

Aipatu da gorago sentsibilitate modernoaren garapenean zein garrantzitsu gertatu zen Rousseau-ren paseatzaile bakarti harengandik hasi eta erromantizismoaren tradizio iraunkorrera pasatuz, *Leturiaren egunkari ezkutuko* dekozioa taxutzeraino eragin duen sentiera berria.

Egia bada ere guretzat ondare erromantiko hori –bere parke, baratze, biolin musika eta pasiatzaile tristeekin– estereotipo bihurtu dela jada, ezin uka sentsibilitate modernoaren garapenean, eta baita gurea bezalako modernitate berankorreak ere, izan zuen eragin berritzailea.

Esana dugu baita ere egunkari baten mozorropean eraikitako eleberriak zein tolerantzia handia izan ohi duen bertan garatzen diren ideiekin. Atergabea da gogoeten trafikoa, maiz ia beste ezertarako tarterik hartuko ez duelarik narratzaileak. Horren adibiderik behinena «Negua» atala dugu. Pariseko deskripzio xume batzuk salbu, etengabea eta agonikoa da egiaren (bere egiaren) bilaketa, Leturiaren baitan gertatutako bilakaera intelektuala. Labur-labur esanda, bilakaera horrek existentzialismoaren ondare zaratatsuenetik (gizabakoaren askatasun muturrekoenetik) kristautasunaren ondarean ondo erroto-tako sentiera bateraino ekarriko gaitu.

Bilakaera horretan desegin egingo dira absolutuak eta uko egingo zaio aukeratzeko askatasunari zoriaren (edo naturaren) mesedetan, uko egingo zaio adimenari sentimenduaren mesedetan, uko «ni»aren harrokeriari umiltasunaren mesedetan:

aukeratu... ez daukat nik aukeraterik!
 Nazkagarria da gañera aukeratzallearen arrokeria...
 Eziña eta gorrotagarria da, bada, aukeratzeko nire naikunde zaarra.
 Ta ura jotzen nuen nik gizonen sustraia? (135. or.)
 Ni, ni, ni. Onatx korapilloa: neu nintzen kontutan eduki bear zen bakarra.

Azkenean, oinarri-oinarritzko kristautasunaren karitatea eta maitasuna besarkatzera errendituko da Leturia:

eta zer da maitasuna? Nork bere burua eman, nor bere buruaz aaztu, nor bere burutik ateratzea. Beste batek gu aukerazten uztea. (136. or.)

Zein gertu gauden oraingo honetan Unamunoren *San Manuel Bueno, mártir*-eko mezuarekin: federik gabe eta sinismenik gabe ere lagundu hurkari («sinistea sinistu nahi izatea da»).

Iritsi gara ba, barealdirik gabe, atergabeko ideien arteko borroka agoniko batean, amaierako soluziora. Dramatismo intelektualik ez zaio falta izan nobelari. Baina dramatismo nobelistikorik? Hau beste kontu bat da. Intelektualaren garaipena nobelagilearen porrota da. Intelektualki atzeman den maitasunik ez da nobelatu. Esan nahi dudana da ez dagoela maitasunik nobela honetan, ez maitasun nobelaturik. Eta ez dagoela bizitzarik, bizitza nobelaturik. Soilik Leturiaren buruan ibili da halakorik.

Ez da *Leturiaren egunkari ezkutua*-n bizitzaren zurrumurrurik entzuten. Soilik eleberriarren lehen zatian –«Udalenean»– entzuten da haren oihartzuna, maila oso apalean, udan zehar isiltzeko. Handik aurrera ez dago Leturiaren ahalegin zerebrala baino. Zeren gauza bat da ezagutza, eta bestea, bizitza. Eta nobela hau orekatua izatera, gogoeta mamitsu horiek guztiak bizitza errearen zurrumurruekin oretuta jaso beharko genituzkeen. Ez da halakorik gertatzen, ordea. Areago esango dut, narratzaileak propio egiten dio ihes bizitza errearen kutsadurari, ihes afektu, egunerokotasun, mania eta komizitateari, hain egokiak, bestalde, eguneroko batean jasoak izan daitezten.

Zer da ba, bestela, «Uda»rekin gertatzen dena? «Uda»k nobelagileari eskatzen zion erronka ez zen makala: ekaitz intelektual potoloak alde batera utzi eta bikote ezkon berriaren eguneroko bizitza arruntean murgildu. Ulertzen dut horrek Leturiaren egilearentzat interesik ez izatea, nobelagileei maiz gertatzen baitzaie aspergarri trantsizio garaiak lantzea, nahiz eta trantsizio eta barealdi horiexetan erakutsi behar duen maiz nobelagileak bere abilezia. Are interes gutxiago luke lan horrek Txillardegirentzat, zeren nobelaren tesiaren abiadura azkarra da, eleberria abian jarri baino lehen erabakita dago mezua, gutxi gorabehera, honelako zerbaitera errenditzen dena: maitemintzea leherketa bat da eta erabat gatibu izaten gaitu, gero barealdia dator eta geroxeago maitasunaren ahitzea eta asperdura. Lehen sasoa gatzaroarekin lotzen da, eta bigarren eta hirugarrenak, heldutasunarekin.

Egia esan, zer dakigu Leturiari berari buruz, nobelako pertsonaia nagusi eta bakar horri buruz, bere gogoeta mamitsuez gain? Ia ezer ez. Ez dakigu nolakoa den, zer egiten duen pentsatzen ari ez denean, zein mania dituen, nola bizi den. Leturiaren gustu jasoaren lekuko gisa aipamen kultu batzuk ematen zaizkigu soilik. Guk ez dugu «gizon»a ezagutzen, benetako gizonaren kategoriaraino altxatuz, Gandiagak ustez hain ondo ezagutu zuen pertsonaia hori. Guretzat benetako «gizon», benetako pertsonaia izatera iristeko dezente du faltan Leturiak. Tentazioa etorri zait Gandiagaren bertsoak berregiteko. Nahia-go dut pentsatu bere ustean hala zela, «gizon» zela, garai hartan beharbada gizonari klabe intelektualean eskatzen ziotena eskolastiko/ez eskolastikoen arteko eztabaidetan erabakitzen zelako. Uste dut gu esijenteagoak garela.

Gehienetan ez dira poetak izaten kritikorik egokienak nobelen gorabeherrez hitz egiteko garaian, nahiz eta poeten artean baden nobela irakurle zorro-

tzik. Horietako bat iruditzen zait Auden poeta. Hara zer esaten zuen Auden-ek maitasunaz eta egiaz ziharduela:

egiak eta maitasunak elkarren eskutik joan behar dute beti; hori ez denean posible, maitasunak gailendu behar du. Poetaren hautaketa maitasun aukeraketa bat da. Horrexek bereizten du haren pentsamendua filosofoarenarengandik. Azken hau egiaren izenean bizi da soilik, maitasunari uko egin behar badio ere...

Binomio hori gure eleberrira ekarriz, zeraz konturatuko gara, ez dagoela inolako orekarik bi aldeen artean, garbi etzaten dela nobela egiaren azterketa soilera. Leturiaraz gainera, ez dugu beste pertsonaiarik ezagutzen, bizitza fisiko eta espiritual autonomo bat erakutsiko lukeen benetako pertsonaiarik. Mirenek ez du pertsonaiaren giza nortasunik, Leturiaren behar intelektualen justifikaziorako ez bada. Miren trapu zahar bat da, komeni denean txisteratik atera eta bere paper inuzentea beteko duena. Horren frogarik larriena bere gaixotasunarena da. Zein modu miragarrian heltzen zaion Leturiari Mirenen gaixotasiaren berria! Baina, orduan ere, bere baitan bizi duen bilakaera intelektualak du lehentasuna eta premia. Azkenean, ez dakigu zer gertatu zen Mirenen gaixotasunarekin, ez derrigorrezkoa delako datu hori nobelari amaiera emateko, baizik eta Leturiaren erorketa/suizidio edo dena delako horren parean bederen egon zitekeelako interesgune gisa. Bide batez esan dezadan ahula dela narratiboki suizidioa mozorrotzeko saio hori, istripuarena erabat sinesgaitza gertatzen delako.

Egiatik asko du Leturiaren azken aurkikuntzak, alegia, maitasunerako ezintasuna dela dohakabearen patua, inor ulertzeko, inori emateko, inor laguntzeko ezintasunak egiten gaituela dohakabe. Baina egia hori ez du literarioki lortu, filosofikoki baizik. Azken finean, *Leturiaren egunkari ezkutua* jeneroaren abusua da eta, konbentzioaz harago, ezer gutxi du nobelatik. Nobela da, hala ere.